



Gazteluko Udalak babesa adierazi die inkulpatuei

ASMOAK ▶ Mozioa jasotzearekin batera konzentzaziora deitu du etzi Udalak eta plenoa egingo dute

SENTENTZIA ▶ Urriaren amaieran atera zen sententzian 13 lagunei kartzela zigorra egotzi diete ▶ 6

AMEZKETA ▶

Hitzaldia, bertso afaria eta musika gaur

«Euskal Herriko egoera» dela eta ▶ 2



Sahararrak bisitatzen izan dira eskualdeko 7 lagun

TOLOSALDEA ▶

Hilaren hasieran 8 eguneko bidaia egin zuten errefuxiatuen kanpamentuetara

Aste Santuetan bezala, abenduaren hasieran bidaia antolatu zen Euskal Herritik Saharara bertako familiarekin egun batzuk igarotzeko helburuz. Hala, Tolosaldeko 7 lagun joan ziren errefuxiatuen kanpamentuetara. Bestalde, abian da jada III. Sahararen aldeko euskal karabana: *Piztu itxaropena* lelopean. Merkatu Txikian nahiz herriko supermerkatuetan bilduko dituzte elikagaiak. I. TERRADILLOS ▶ 4-5

TOLOSA ▶

Gerontologiko berria berretsiz erantzun dio Udalak plataformari

Mozioa aurkeztu zuen plataformak eta Udalak proiektu berria onartu du ▶ 3

TOLOSA ▶

2007ko inbertsioen gastua jaitsi egingo da

Aurrekontuak onartu ditu Udalak ▶ 3



AMEZKETA ▶ POLITIKA



Eko4 taldea Amezketan izango dira. Ezkerretik bigarrena eta laugarrena Leitzako Aizagirre eta Erbiti. HITZA

Hitzaldi, bertso afari eta kontzertuekin, aldarrikapen berezia

«Euskal Herriaren egoera ikusita» Eguberriak aprobetxatu dituzte jai giroarekin lotutako ekitaldi bereziak egiteko

NEREA URBIZU

Eguberrietan Amezketan hainbat ekitaldi izango dira. Horien artean, gaurkoa da aipatzekoa: izan ere hitzaldia, kontzertua eta bertso afaria ere izango da.

«Euskal Herria jasaten ari den egoera ikusita, Amezketan ere egin nahi izan dugu aldarrikapen baten», zioten antolatzailleek. Horregatik, jai giroan igaroko dute egunaren zati bat. Arratsaldean, 18:00etan, autodeterminazioaren inguruko hitzaldia izango da Asier Imazzen eskutik, balioanitzeko gelan.

Gero, bertso afaria izango dute amezketarrek, 20:30ean. Oartzundik eta Ataundik hurbilduko dira afaria alaitzeko asmoarekin hiru bertsolari.

Zazpi iturri elkartean egitea pentsatu dute, eta beraz, tokia-erengatik kopuru mugatua dute eta 50 lagunentzat prestatu dute janaria: «Dagoeneko saldu ditugu txartel guztiak». Bertso afaria *Euskal preso eta iheslariak bizirik eta etxean nahi ditugu!* lelopean izango da.

Bestalde, hilaren 31n 19:30ean udaletxearen parean kontzentrazioa egingo dute eta aldi berean euskal presoek postalak idazteko eta sinatzeko aukera izango da.

Kontzertuak

Gaurko bertso afariaren ondoren, 00:00ak aldera, *Euskal gazteriaren aurkako erasorik*

ez!

leloarekin bi kontzertu izango dira pilotalekuan. Errugabe eta Eko cuatro nafarrak joango dira oraingoan.

Egun osoan biltzen duten diru guztia «azarroan eskualdean atxilotu zituzten Aritz Lopez eta Eneko Elolaren fiantzak ordaintzen laguntzeko» izango da.

Eko cuatroko bi kide Leitzakoak dira: Josu Erbitik batera jotzen du eta Iraitz Aizagirrek, aldiz, baxua. Beste guztiak Doneztebe aldekoak dira. Taldeak diskoa atera berri du, *la columna vertebral* izenarekin. Aurkezpen kontzertua izango dute, hau baitute hirugarren saioa diskoa kaleratu zutenetik. Beraz, Amezketa plaza izango da zer entzun eta zer ikusi.

ALEGIA ▶ MUSIKA

Txintxarri abesbatzak Gabon kontzertuan, gaur

Donostiako Mariaren Bihotza ere izango da eta elkarrekin kanta bat abestuko dute

ERREDAKZIOA

Gaur 19:30ean, Eguberrietako kontzertua izango da: Alegiko Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzekin batera Donostiako Mariaren Bihotza abesbatzak abestuko du.

Eguberrietako kontzertua Alegiko elizan eskainiko dute: hiru abesbatzen artean abesti bat kantatuko dute. Ordubete inguruko emanaldia prestatu dute abesbatzek. Txintxarri Txiki izango da aldarera aurrea aterako dena eta 4 kantu eskainiko dituzte.

Helduen abesbatzak ondoren 6 abesti eskainiko dituzte. Jarraian, Donostiako Mariaren Bihotza abesbatzaren txanda helduko da. Nabarmentzekoa da abesbatza honek Gabon abestiz osatuta kaleratu berri

duen CDa; Donostiako Txistulari Taldearekin batera atera dute eta Elkar argitaletxeak ekoitzi du.

Kontzertuari amaiera emateko, abesbatzeko kideak elizako korura igoko dira eta handik Haendelen lan ezaguna eta Alegian aspalditik kantatzeko ohitura dutena abestuko dute: *Alleluia*.

Gabon kantak garrantzitsuenak badira ere, tradizionalki direnak abestuko baituzte, hala nola, *Xalbadorren heriotza*, edo *Asiko naz*.

Urte ondo hasteko

Eguberrietako kontzertuen zikloari amaiera emateko, hilaren 1ean Txintxarri abesbatzak meza nagusian abestu egingo du, Alegiko elizan.

PRESOAK ▶

Eguberrietan ere Etxerat presoekin bat eginez

Iñaki de Juana presoak 53 egun egin ditugose greban; egoera salatuko dute berriro

ERREDAKZIOA

Hilabeteroko azken ostirala izanik eta Eguberriak izanik, Etxeraterako presoekin batera iheslarien aldeko kontzentrazioak egingo dituzte. Bereziki, Iñaki de Juanaren egoera salatuko dute. Hau ohera 12 orduz lotzen dute gogoz kontra elikatzeke. Etxeraterako esanetan, presoekin eskubideak aldarri-

kutzen jarraitzea «ezinbestekoa» da, azken hilabeteotan euren egoerak okerrera egin baitu.

Eskualdeko kontzentrazioak hauek dira: 19:30ean, Alegian, Amezketan, Anoetan, Ibarran eta Tolosan. 20:00etan, berriz, Adunan, As-teasun, Ikaztegietan, Leitzan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilan izango dira.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

UDALA ▶

Datorren urteko inbertsioen gastua aurtengoa baino %53 bajuagoa izango da

Usabal kiroldegia eraikitzeke eskatutako maileguren ordainketa 2006an amaituko dute, bestalde, proiektu handiei eman zaie bukaera aurtengoan

ESTI EZEIZA

2007ko aurrekontuak onartu zituen Tolosako Udalak, herenegun eginiako aparteko bilkuran. EAJ, EA eta EBK alde bozkatu zuten, PP eta PSE-EEK berriaz aurka agertu ziren. Tolosa Bizirik herri ekimenak halaber, bere iritzia eman zuen mahaiaren beste aldetik eta «aurrekontuak egiteko garaian beraienkin kontatu ez izana» salatu zuten.

Aurrekontu bateratua 33.490.254 eurotakoa da. Honek barnean hartzen ditu Udalaren aurrekontua eta Udalaren parte diren enpresa publi-



Udala osatzen duten zinegotziak herenegungo osoko bilkuran. E. E.

koena: Iurreamendi egoitzarena, Tolargirena, Erretengibele-na, Tolosa Lantzenena eta Tolosa Gasarena. Udalaren aurrekontuari dagokionean, hau 25.744.000 eurotakoa da.

Luze jo zuen herenegungo udaletzeko aurrekontuen gaineko eztabaidak. Alderdi bakoitzeko ordezkariak beraien iritzia eman zuten, taldearen aurkako zein aldeko jarrerak azalduz.

Joan den urtean izandako inbertsio gastu handiaren ondoren, aurtun, hau %53,21ean jaitsiko da. Iazko 15.964.240 eurotatik, 7.470.000etara igaroz. Izan ere, Usabal kiroldegiaren

eraikuntzak zor handia suposatu zuen Udalarentzat, eta hauek ordaintzeko zenbait mailegu eskatu behar izan zituzten. Hala ere, aurrikuspenen arabera, 2006aren bukaerarako amaituko dute ordaintzeaz. Bestalde proiektu handiei eman zaie amaiera aurtun, Leidor eta Zerkausia esate baterako. Hala, datorren urtean berriro ere aurrezten saiatuko dira.

Inbertsio nagusiak

Datorren urteko aurrekontuetan agertzen diren inbertsio nagusiak ondorengoak izango lirake: alde batetik, Euskal Herria plazan egingo diren lanak, horien artean, Txotxongi-Loen Nazioarteko Egoitza. Abastos plazako eraikerako ere diru ugari bideratuko dute. Bestalde, inbertsio nagusietako bat Gerontologikoarena izango da. 703.000 euro bideratuko dituzte Alondegiko eraikina erosteko, eta beste 530.000 proiektu berria aurrera eramateko. Herenegungo bilkuran mintzagai izan ziren ere Santa Lutzia auzoko lanak eta Amarotz eremuak.

GERONTOLOGIKOA ▶

Udalak proiektu berria berretsiz erantzun die plataformako kideei

«Eraikitzearen ardura esleitzen denetik bi urtera martxan egongo da»

E. EZEIZA

Herenegun eginiako ezohiko bilkuran Gerontologikoa izan zuten gai zerrendako lehenengo puntua. Gerontologikoa aldedeko plataformak mozio bat aurkeztu zuen joan den osoko bilkurarako. Baina epez kanpo ibili zirela eta ez zuten bilkuran eztabaidatu.

Herenegun, hasteko, Manu Leundak plataformaren izenean adostu zuten idatzia irakurri zuen, bertan, euren eskaerak luzatuz. Honi erantzunaz, Tolosako Udala osatzen duten alderdi politikoek adostu zuten idatzi bat aurkeztu zuen Jokin Bildarraz alkateak. Testu honetan, gerontologiko berri baten proiektua mahairatu zuten. Egitasmo berriaren xehetasunak agertu zituen eta mahaiaren zeuden alderdi guztiek adosturiko proiektu horren alde bozkatu zuten.

Zentro hau, joan den maiatzean agertu bezala, egungo Alondegian eraikiko litzateke,

egoitzak 128 lagunentzako tokiak izango luke, eguneko zentroak 60rentzako eta apartamentu tutelatuak beste 20rentzat. Honek zerbitzu publikoa integratzea eta kalitatezkoa eskainiko luke. Bestalde, eraikiko duen enpresari esleitu ondoren, bi urte izango ditu martxan jartzeko. Dena den, «egungo egoera arintzearen», Iurreamendi egoitzan 16 plaza gehiago jarriko dituzte.

Herenegungo akordioaren ondoren, orain, enpresa ezberdinek beraien proiektuak aurkeztu beharko dituzte, eta Udalak horietako bati esleitu dio eraikitze aukera.

Tolosa Bizirik herri plataformak, bere aldetik, alderdien arteko adostasun honetan parte hartzeko aukerarik ez ematea leporatu zien gainontzeko alderdiei. Eta erabilitako prozesuarekin eta formekin erabat «desados» zeudela adierazi zuen Antton Izagirrek, «prozedura honekin herritarren parte-hartzea ukatu egiten baita».

Bilkuran zeuden alderdi gehienek bat egin zuten plataformarekin, honek, egoeraren larritasuna agertu zuenean. Bestalde, Gerontologiko zaharra ixtean Udalarengandik baztertuta sentitu zirela adierazi zuten. «Proiektu hau aurrera eramanez gero ere, gutxienez hiru urte beharko dira gauzatzeko, eta bitartean zer?» galdetu zuen Jabi Aranak. Honekin batera, behin eta berriz, kudeaketaren eskuduntzaren



Manu Leundak irakurri zuen Plataformaren idatzia. E. EZEIZA

inguruan mintzatu zen, «Gerontologiko berriak publikoa izan behar baitu». Eskatera honen aurrean, alkateak azaldu zuen, oraindik ez zekitela nor arduratuko zen kudeaketaz, eta publikoa izateak ez duela beti kalitatea ziurtatzen.

iragarki laburrak ▶


SALGAI

Autoa. Ford Scort 1.800 TD.
SS-BC. Telefonoa: 943 65 52 88.
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18 llantak eta sapaia. Egoera onean. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43ra.

BESTEAK

Pisua alokatzeko. Pertsona batek

pisu bat alokatuko luke Tolosan. Absteni daitezela bitartekariak. Interesatuak deditu 943 01 62 76 telefonora.
Loradenda. Loradenda eskualdatzea Lasarten: 30 urte baino gehiagoko jarduera, materiala eta guzti. Interesatuak deitu 943 36 75 75 edo 626 50 56 89 telefono zenbakietara.



Salgai (Tolosa) Larramendi kalean, Voith-en parean. 60m2-ko pisu polita. Terraza 20m2-koa.
Salgai (Berastegi) Familia bakarreko etxebizitza 4.000m2-ko lursailarekin.
Salgai (Tolosa) Iurrarrendi zuozan etxe zoragarria. 2 solairu.
Salgai (Tolosa) Alde zaharrean 75m2-ko pisu polita eraberritua. Igogailua onartua.
Salgai (Tolosa) Alde zaharrean 50m2. Atiko apaina estreinatzeko reformatu osten. Gazteentzako egokia. 191.722 euro.
Salgai (Aitaun) San Martin. 60m2-ko pisua, estreinatzeko guzti eraberritu osten. Gazteentzako egokia. 164.677 euro.
Salgai eta alokairuan. Lokal komertzialak
943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50

GIZARTEA ▶

Sahararrak hurbilago

Urtero bezala, hilaren hasieran saharar errefuxiatuen kanpamentuetara bidaiari egin zuten Euskal Herrietik; Tolosaldeko 7 lagun joan ziren familia bisitatzea

IRIGO TERRADILLOS

Urtero bezala, hilaren hasieran saharar errefuxiatuen kanpamentuetara joateko bidaiari antolatzen zen Euskal Herrietik. Guztira bi hegazkin, 500 lagun inguru abiatu ziren abenduaren 1ean Argelako Tinduf hiriko aireporturantz. Handik, kamioiez, autobusez edota 4x4 autoz no-behe herrirakalari-dean jarri, eta azkenean familia bizi den auzora heldu. Horrela izan ohi da Beina, bidaiari bezain neketsu haur egiteak merzei du; izan ere, udan euren etxean haur eta gazte sahararrak haur dituztenek gaste-troa berriro ikusteaz gain, euren familia ezagutzeko, non bizi diren ikuszeko egoera beretan jarri dela jabetzeko, aukera izaten dute. Azken batean Saharako familiarakin egun berezi batzuk igarotzea esan nahi du bidaiari.

Tolosaldeetik guztira 7 lagun izan dira desertuan egun haseko igarotzen; etxerako aldia izan zen batzuentzat, eta besteentzat, berriz, jadanik ezaguna den esperientzia. Guztientzat, ordea, pasa dituzten egunak nahikoak izan dira, han bizi diren benetako egoeraren gordinasunaz jabetzeko; hau da, 30 urte eta gero, errefuxiatuen kanpamentuetan ez auzora eta ez auzora egiten duen egoeran, ezer gutxi aldatu dela konturatzeko.

Tolosaldeetik laguntza

Sahara bizi Tolosaldea Sahararen elkartek hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean behar sahararak laguntzeko helburuz. Hala, ekimen horien ondorioz bidaiatuko diruz martxan dituen proiektuak aurrera eramateko baliatzen ditu. Pasa den urtera arte Aulim wilyaiko eskolak sahararrentzeko bideratzen zuten diru laguntza. Egun, beste proiektu batean murgilduta dabiliz, izan ere, internet gunea, jolasparke eta igerileku truki bat dituen auzalde gunea eraikitzeari ekin zioten udan berri gertatzen diren gaztekoiei bideratuta, eta elkartekoek proiektu honetara bideratzea euren laguntza erabaki zuten. Hala, elkarteko kideek hilaren hasieran errefuxiatuen kanpamentuetara egindako bidaiari proiektua nola ari den gauzatzen ikusteko ere baliatzen dute, jarraipena emateko. Bukatuztat ematen diren kasuetan, gabezia handienak non dauden aztertzen dute hurrengo laguntzak hira bideratzeko.



Ajeriako Tinduf hiraren ondoan dauden errefuxiatuen kanpamentuetan ikus daitezkeen 3 ohiko paisaiak. IRIGO TERRADILLOS

«Baietz aruten 7.000 kilo bildu sahararrentzat!»

Jedanik martxoan da Fronte Polisarioaren eskakizuna kontuan hartuta eta Sahararen aldeko euskal elkarte ezberdinen elkarlanean kordinazio politikoa barnean, III. Sahararen aldeko euskal karabana *Zuztu Jizangoren* leiolean, Sahararen Aldeko

Euskal Elkarte Kordinakundea eta Euskal Fondonaren laguntza. Datoren urteko otsailan aterako den karabana honen helburu nagusia sahararrei ahalik eta elkagai gehien eramatea da. Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan paira-

izen duten elkagai falta zezke. Aurtengoan eman beharrezkoak, hegaleza, arroza, ditlak, azukrea eta kongreak dira. Haseko gutxiak hilaren 7n arte Lasokoran ikastola antolatuta Tolosaldeko Kultur Etxean dauden Merkatu Txikiari eramateko aukera izango da, ho-

retaz gain, Maxi Eroski, Consum eta IFA supermerkatuetan ere utz daitezke elkagaiak. Merkatu Txikiari urtarriaren 7an amaitzen bada ere, janari bilaketak urtarriaren amaierara arte iraugo du, eta azken aste horietan ikastetxeen eta herri desberdinetako Kultur Etxetan egingo da bilketa.

Bestalde, aurtengoan erroka edo lelo batekin dator Sahara bizi Tolosaldea Sahararen elkartea eskualdean ahalik eta elkagai gehien bildu ahozko. Batez 7.000 kilo/duztienez kopuru hori berdintzea edo gainditzea lortu nahi dute elkartekoek. Horretarako, neurgailu bat jarriko dute Tolosaldeko Triangulo plazan zentratu kilo biltzen doazen ikusteko; omodu honetan herritarrek animatu nahi ditugu muga hori gainditzeko elkagaiak ekar ditzaztena.



Sahararak. Duten adinagatik argi dago batzuk egoera larriagoak bizi izan dituztela, euren lurraldeetik alde egin beharra, esaterako. I. I.



Jostailuak. Hemendik bidaiatuko jolasteko gauletan pozik ageri da gazte saharar hau. Bertan, ez dituzte horrelako jostailuak izaten. I. TERRADILLOS



Jolasean. Gazteboak euren autobekin jolasten. I. I.



Proiektuak. Golan, Dajlako baratzak. Proiektu baten bidez lagunduta erakili zuten, izan ere, desertuan beste edozein lekutan baino zailagoa da lurra erretzea. Behean, Tolosaldea Sahararen elkartek lagunduta erakili den aisialdi gunea Aulim, Internet gelak, jolas parkeak eta igerileku truki batek osatzen dute, besteak beste. I. I.



1.000 euroko laguntza saharar proiektuentzat

Esti Ezela ▶ Itaki Garmendia Gure Txokoa elkarteko lehendakariak hurrengoan eman zuten eskurara 1.000 euroko txekia Ana Trapero eta Gregorio Ezaguirre Sahara bizi Tolosaldea Sahararen elkarteko kideei. Sahararen alde dituzten proiektuak laguntzeko baliatuko dute diru hori. Hain zu-

zen ere, urriaren 25ean Beotibar pilotalekuan izan zen jaietan bildu zuten dirua da. Hala, elkarteko kideek eskertrak eman nahi izan zizkien ekitaldian parte hartu zuten kirolariak, ikuskizuna ikustera joan zirenetik eta Gure txokoa elkarteko egindako lanagatik. I. I. IZUAZ

ABENDUAK 31, arratsaldeko 7retan
Miharduko plazaik Zuzutze hori hurrengo plaza
Manifestazio Xila
AGTONGO BAIKARA
jola osatuko gasteak alde!!!

ZOS
SOLAKO IKASTOLA
943 65 56 95

hitza Harpidedunen txokoa
HITZAKO harpidedunen artean Jokoa
10 ale zozkatutako ditugu!
Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: 943 65 56 95

“TOLOSA JOKOAN”
Tribial jolasa CD-an
750 galdere-erantzun Tolosari buruz
1 eta 4 jokalarien artean jolasteko
(adun guztietarako)

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

Euskal herri
kirolen jaialdi
alaitua

Nerea Urbizu ▶ Uli Mankomunitateko ludotekek atzo Belauntzako pilotalekuan herri kirolen jaialdia egin zuten. 40 bat haur bildu ziren Kulki taldearen jolasekin aritzera. UEMAko Kultur Elejiraren barruko egitarauko ekitaldi bat gehiago izan da atzokoa. Lokotxak biltzen, belar fardoak altxatzen, uztaiekin, txingekin... euskal herri kirolak zabaltzeko beste aitzakia bat proposatzen dute Kulkiok era dibertigarrian. Denetik probatu zuten umetxok, herritik bertatik, Leaburu-Txaramatik, Gaztelutik eta Oreatatik hurbildutako ume eta ez hain ume guztiek. HITZA



TOLOSA ▶

Musika emanaldi
berezia Santa
Klara elizan

Gaur 20:15ean Santa Klara elizan kontzertu berezia izango da. Bertan ariko dira Santa Zezilia eta Donostiako San Inazio abesbatzak. Hauekin batera ariko da Tolosako Arimaz kamarako orkestra.

IBARRA ▶

Datorren urteko
egutegiak doan,
goizetan hartzeko

Ibarrako Euskara Zerbitzuak 2007ko egutegiak argitaratu berri ditu. Ibarrako Udalean eta Euskara Zerbitzuari jaso daitezke, doan eta 09:00etatik 14:00etara bitarte.

GAZTELU ▶ POLITIKA

ERREDAKZIOA

Gazteluko Udalak pleno bat egiteko asmoa du, Gazteluko Kultur Etxeko lankideen kaleratzearekin lotutako ekintzekin aurkeztutako mozioari erantzun ofiziala emateko. Orain arte ez da posiblea izan, «idazkariaren laneko baja dela eta». Besteen artean, elkartasuna eta babesa erakutsi die. Horren harira, kontzentrazirako deialdia egingo dute etzi, udaletxearen parean 12:00etan, «12 inkulpatuei elkartasuna adierazteko».

Udalak inkulpatuek egindako mozioa jaso zuten, eta hau da mozioak zioena: «Urte hauetan dagoen afera politikoa, Gaztelu zuzenki edo zeharka kolpatu du, emandako gertaera bidegabean jatorria politika izan baita».

EAJren «herri desegituratzea eta krispazioa indartu» duela adierazten dute inkulpatuek, «gatatzak areagotu eta herritarren izerdiekin garranturiko proiektuak desagertarazi nahian». Honekin, Kultur Etxea gogoratzen zuten.

Urriaren erdian Tolosaldeko 25 herritarren aurkako epailetan «hainbat herritarren aurkako zigorrak» ezarri ziren. Horrela, eskaera berezi bat luzatu dio Gazteluko Udalarri: «Kaltetuak izan direnekin elkartasuna». Horretarako kontzentrazio bat deitzearen beharra azpimarratzen dute.

Bestetik, «herri hau kaltetua eta heriotzara eman izan izana» salatu zuten.

Hirugarren nahian, «antzeko gertaerak eta gatatzak gerta

Elkartasuna adierazi
die Udalak inkulpatuei

Pleno bat egiteko asmoa erakutsi du inkulpatuen mozioa jasotzearekin batera; etzi kontzentrazioa egingo dute



Gaur egun, Kultur Etxea zena udaletxea eta taberna da. N. URBIZU

ez daitezten, jarrera aktiboa izatea udalerrri honek, irtenbide demokratiko eta parte-hartzailean oinarritua» eskatzen dute.

Azkenik, «herriaren osasuna eta bizia berreskuratu ahal izateko lanerako konpromisoa hartzea». Honetan, herritarren iritziak haintzat hartuz proiektu desberdinak egitea ahalbidetu lukeela proposatzen dute. «Besterik ezean», bukatzen dute, «herri eredu baztertzaila, ukatzaila eta txikitzailea

bultzatu nahi dutenen aurrean, herri partaidetza eta eskubideen aldarrikapena bultzatu besterik ez zaigu geratzen».

Udalaren babesa

Honen aurrean Gazteluko Udalak elkartasuna adierazi die inkulpatuei: «Erabaki larri honen aurrean elkartasuna adierazi nahi die kondenatu guztiei», eta haien esku dagoen guztia egingo dutela «kartzelaratuak

izan ez zaitezten». Bestalde, «Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak 2006ko azaroaren 2an ebatzi epaia, aurretik eraman den prozedura guztia eta bertan inplikatuak egon diren Gazteluko herritarren adierazpenak aztertu ondoren, adierazi behar dugu ukaezina dela herritarren nahiz eskualde osoan, bizi izan den eta bizi den giroan dagoen tentsioa».

Adibide gisa, Gazteluko Kultur Etxea eta aterpea zenean lan egiten zuten 5 langile eta beste 8 herritar «2 urtetako kartzelaratzera kondenatuak izan direna» aipatu dute. Hau 1999 eta 2000. urte bitartean, 5 langileak «kaleratzean izan ziren mobilizazioak zirela eta, Pilar Zubiarriaren abokatuari, kokazioa egiteagatik».

«Benetan gogorra da». Izan ere, «gure ustetan, momentu hartan izandako mobilizazioa eta gertakizun guztiak eskaera laboral bati erantzuteaz gain, herritarrei informazioa ematea besterik ez zuten helburu».

Une hartako korporazioak —Gazteluko Herritarrek— Kultur Etxea eta aterpea itxteko zuten «arrazoi bakarra» udaletxearen kokagunea zen.

25 herritarren
sententzia

Iragan urriaren 20 inguruan Donostiako auzitegi batek Tolosaldeko 25 herritar epaitu zituen. Hauei, 1999an Gazteluko Kultur Etxea itxi eta hango 5 langile kaleratu ondorengo protestak egitea egotzi zitzaizkien epaiketa horretan, eta salaketa Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa, Pilar Zubiarriaren ordezkatzeko abokatua eta fiskaltzak jarri zuten.

Sententzia eman zuten urriaren bukaera aldera, eta bertan, garaian zegoen Pilar Zubiarriaren abokatuari egindako indarkeri eta presioagatik kartzela zigorra jasoko dute 13 lagunek, beste 12ak absolutu zituztenez. ◀

Orduan, langileen kaleratzea eta aterpe nahiz Kultur Etxearen itxia etorri zen, «honek herritarrentzat suposatzen duen galera sozio ekonomikoarekin batera». Langile kaleratuak Gartzeteleko epaitegiarengatik ezagutuak izateaz gain, kaleratze ez justu batengatik kalte ordaina jaso zuten.

Gazteluko Herritarrek taldeak «eskainitako kapitulu garrantzuetan argi ikusi zen herriak honekiko zuten iritzia», hurrengo hauteskundeetan udaletxetik at gelditu ziren.

Azkenik, Udalak «onartezina» izan dela «pertsonek hauei» prozesatuak eta kondenatuak izan direna», alegia.

LEITZA ▶

Aparkalekuak erabiltzeko aholkua luzatu du alkateak

ERREDAKZIOA

Leitzako alkateak, Patxi Saenzek, kotxeekin eta bereziki furgonetekin dauden arazoak ikusita, lanak bukatu ondoren igerileku ondoko aparkaleku hutsik gelditzen dela azaldu du, erabiltzen ez delako.

Bestalde, Patxi Arrazolako kaleetan espaloien gainean ere kotxe asko ikusten direla azpimarratu du Udalak.

Hau guztia dela eta, kolpeak egonez gero, «Udala ez dela arduratuko» argi utzi du herriko alkateak. Horrelako egoerak saihesteko, kotxeak aparkalekuetan uztea eskatu du, eta bereziki, igerilekuko aparkalekuak erabiltzea.

Azkenik, aparkaleku honetan kotxeak utziz gero «nahiko toki» badagoela ere azaldu alkateak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

LEITZA ▶ KIROLA

NAIARA GARZIA

Joan den ostiralean egindako Gabonetako Ateakabeltzeko futbito txapelketaren emaitzarekin «oso pozik» azaldu dira Gazte Asanbladako kideak. «Ez genuen hainbeste jendeke parte hartzea espero, ez txapelketan ezta publiko bezala ere», azaldu du Ibon Azpirozek.

Txapelketa, aurreikusia zegoen bezala hasi zen, gaueko 22:00etan. Txapelketari hasiera emateko bertan izena emandako 11 taldeek zer ordenean jokatu zuten antolatu du gero hasi zen lagunen arteko norgehiagoka. 11 talde hauek, talde bat goizuetarra izan zen, baina gainontzekoak leitzarrak, nahiz eta Ibon Azpirozek azaldu duen bezala, «inguruko jendeak ere parte hartu, ezurrarrak, esaterako». Orotara, 90 bat izan ziren txapelketan parte hartu zuten jokalaririk.

Partida bakoitzak 25 minutuko iraupena izan zuen, eta 22:00etan hasi eta gizeko 8:00ak bitarte jokoan aritu ziren 13 taldeak. Honen arabera, talde bakoitzak 4 aldiz jokatu zuen, 10 ordu horiek betetzeko. Publikoari dagokionez, «momentu batzuetan kiroldegia erabat beteta» zegoela esan du Ibon Azpirozek. «Goizeko 05:00 aldera jende kopurua jaitsi zen, baina orduarte jende asko ibili zen». Gaztetzeara, berriz, hasiera batean gau osan zehar irekia mantentzeko asmoa bazuten ere, azkenean ixtea erabaki zuten. «Izan asko emanen zuela pentsatu baike-nuen».

10 ordu futbitoan ibili ondoren egin zuten lehenengo atsendaldia goizeko 8:00etan, me-

Gazte Asanblada «oso pozik» futbito txapelketarekin

Jende askok parte hartu zuen bai jokalaririk moduan, bai jarraitzaile bezala ere, kiroldegia «erabat» bete baitzen



110 jokalarietako zenbait kide. HITZA



Jende asko hurbildu zen kiroldegira. HITZA

rezitako gosaria egiteko. 30 gazte inguru bildu ziren eta horretarako Gaztetzera bertara joan ziren. Gosaria, txapelketa bezalaxe, Gazte Asanbladak

prestatu zuen. Finalaurdenak 17:00etan hasi ziren, eta txapelketaren finala 21:00etan amaitu zen. Xoxokabik irabaziz zuelarik.

DATUAK ▶

110 pertsonak hartu zuten parte 11 talde ezberdinetan.

SAILKAPENA

Lehenengo. Xoxokabi.

Bigarren. Metaziri.

Hirugarren. Esteaua.

Laugarren. Beti mozkor.

Bosgarren. Belar txar.

Seigarren. Fenix.

Zazpigarren. Zainzuri.

Zortzigarren. Menstruacion.

IRABAZLEAK

Xoxokabi. Ainhoa Otermin, Antton Urkiola, Unai Tijero, Dani Alvarez, Beñat Zabaleta, Andoni Zabaleta, Edurne Gomez, Joseba Mutuberrria eta Joseba Lazkano.

TALDEAK

Leitza. 10 talde

Goizuetak. Kanpoko talde bakarra izan zen, Goixuta izenekoa.

Antolatzaileak «oso pozik» gelditu dira emaitzarekin, «hurrengo urtean seguruenik berriro egingo dugu, gazteak elkartzea baita helburua».

LEITZA ▶ POLITIKA

Larrain herri plataformak hauteskundeak eta etxebizitzaren gaiak jorratu zituen batzarrean

Iragan asteazkenean iluntzeko 20:00etan bildu ziren hainbat puntu eztabaidatzeko

N. GARZIA

Pasa den asteazkenean Larrain herri plataformak eginiko batzarrean ondorengo gaiak aztertu zituzten: etxebizitzak, hauteskundeak eta azkenik, Ateakabeltz eta zinearen funtzioa.

Etxebizitzari dagokionez, duela 18 hilabete sustatzaile batek Udalarik luzatu zion proiektua aztertu zuten, goiko eta beheko landetan 320 etxe-

terketeta serio baten beharra ikusten zutela azpimarratu zuen Zabaletak.

Hauteskendeei dagokionez, «hor egongo gara ziur» dau dela adierazi zuen Eleni Zabaletak. Batzarrean, 4 urte hauek balorazio baten beharra ere azpimarratu zuten, «Udalaren barruan eta kanpoan». Programa, berriz, «orain arte bezala herriaren partaidea» oinarrituko zela adierazi zuten. Azkenik, Zinea eta Ate-

kabeltzen eraikinek duten funtzio soziala azpimarratu zuten eta baita «horrelako proiektuak epe luzerako ikuspuntuarekin» egin behar direla ere.

KONTSU
TABERNA
Asteburuko menua
Plater konbinatuak
Astearteak ibitza
Orexa • 943 68 21 54

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ibarra. Gaztetxearen XIII. urteurrena dela-eta Norton Klub diskoaren aurkezpena eta ondotik Ezinean taldea. 23:00etan Ibarra Gaztetxean.
Ibarra. Haurrentzako jolas parkea izango da Belabieta Kirolegian 10:30etik 13:00etara eta 16:00etik 18:30era.
Amezketeta. Autodeterminazioari buruzko hitzaldia 18:00etan. 21:00etan, bertso afaria. Leloa: *Preso eta iheslariak ebpera*. 23:00etan kontzertua *Euskal gazteriaren aurkako erasorik ez* lelopean. Lortutako dirua Elola eta Lopezen fiantza ordaintzeko.
Tolosa. Haur Liburutegian, 12:00etan, 5-9 urte bitarteko haurrentzat Iñaki Karretero izango da kontu-kontari.
Villabona. Loatzoko eskusoinu-joleak Santiago zahar egoitzan izango dira 17:00etatik aurrera, Gabon kantak eskainiz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48..

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Asteko onena*.
 21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erosiz lagunduz

TOLOSA ▶ Urtarrilaren 7ra arte Laskorain ikastolak urtero antolatzen duen Merkatu Txikian «jendetza» izan dela azpimarratu dute antolatzaileek



Era guztietako materiala topa dezakete Kultur Etxean dagoen Merkatu Txikira gerturaten direnek. i. r.

ERREDAKZIOA

Lanpeturik zebiltzan atzokoan Laskorain ikastolak hamaikagarren urtez antolatu duen Merkatu Txikian lanean zeuden boluntarioak. Denetarik dute aukeran Kultur Etxera hurbiltzen diren erosle-

ek: arropa, jostailuak, era guztietako gailuak... Euren helburu, berriz, bakarra da, elkartasunari eustea. Eta hauxe da, hain zuzen, aurtengo leloa, *Eutsi elkartasunari*. Urtarrilaren 7ra arte bertan biltzen duten diru guztia bereziki bi proiektu bultzatzeko bideratu nahi dute

Laskorain ikastolatik. Alde batetik, Ane Ilunbe eta Izaskun Azurmendi, ikastolako bi ikasle ohiek, eta Ibarrik Misisio Taldeak egindako proposamena dago. Ekuadorren dagoen Los Rios probintzian Euskal Herriko misioak aurrera eramaten ari diren proiektu integrala

bultzatzea. Baba izeneko kan-toiko bizi kalitatea hobetzea du helburu eta baita, osasuna, hazkuntza eta etxebizitza bezalakoak ere.

Bestetik, Saharako Aaiun Wilayan aisialdirako zentro bat irekitzeko proiektua dago. Haur eta gazteen beharrei erantzunez eta euren indarra eta energia ekintza eraikitzaileetara bideratuz. Zentro hau gazte talde batez kudeatua egongo da eta bertan, informatika eta internet erabili ahal izateko aretoa, liburutegia, haur parkea, futbol zelai eta igerileku txiki bana, eta abar eraikitzen ari dira.

Merkatu Txikian salgai jarri dituzten produktuak erosiz bakarrik ez, beste modu batzuetara ere eman daiteke laguntza: esate baterako, antolatzaileek zabaldu duten kontu korrontean. Halaber, betiko moduan, elikagai biltza ere ari dira egiten Kultur Etxean Saharara bidaltzeko: batez ere hegaluzea, konpresak eta azukrea eskatzen dituzte; pasta, arroza, olio eta lekaleak ere bai.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Intza Egiguren (Añoeta).
 Gaur urtebete. Zorionak Lore eta familia osoaren partetik. Muxuak.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...